



GASCAk, elikagaien xahuketaren aurkako Euskadiko plataformako kide bezala, EuskoJaurlearitzaren Garapen Ekonomiko, Iraunkortasun eta Ingurumen Sailak herritar guztiei zuzendutako sentsibilizazio eta dibulgazio kanpainarekin bat egiten du. Herritar guztiei zuzendurik dago eta Garapen Iraukorreko Helburuak (GIH) lortzeko bidean parte hartzaile izan nahi dugu.

Garapen Iraunkorrerako 17 helburuak guztiontzako etorkizun jasagarria lortzeko plan nagusia dira. Elkarren artean harremana dute eta egunero aurre egiten diegun erronka globalak barneratzen dituzte; hala nola pobrezia, desberdintasuna, klima, ingurumen-degradazioa, oparotasuna, bakea eta justizia. Inor atzean ez uzteko, garrantzitsua da 2030erako helburu horietako bakoitzabetetzea.

Urtero kalkulatzeko da ekoiztutako elikagaien herenak, urtean 1300 milioi tonaren baliokidea, **kontsumitzaileen edukiontzietan ustelduta** amaitzen duela. Kopuru hori zerealen munduko uztaren erdia da gutxi gorabehera.

Hondakin gehien botatzen duen **zazpigarren herrialdea** gara (7700 milioi kilo elikagai), ekonomia aurreratuagoen atzetik, hala nola Alemania, Frantzia edo Erresuma Batua. Euskadin, kalkuluen arabera, 350.000 tona baino gehiago dira (160kg/pertsona/urte, gutxi gorabehera).

Europan, urtero, egoera onean aurkitzen diren eta jangarriak diren elikagaien % 30 eta % 50 artean galtzenedo xahutzen direla zenbatetsi da, eta egoera onean egoten dira nekazaritzako elikagaien kateko maila guztietan, kontsumitzailearengana iritsi.

Elikagaietako ingurumen-inpaktu larrienak ekoizpen-fasean gertatzen badira ere (nekazaritza eta elikagaien prozesamendua), **etxeek** balore horietan eragiten dute, beren **ohitura eta aukera dietetiko**en bidez. Horrek, beraz, ingurumenari eragiten dio, elikagaiekin eta hondakin sortzearekin lotutako energia-kontsumoaren bidez.